

Josefa Maria Setien Aranburu
Irun, Gipuzkoa (1934)

Joxepa Setien

Aurkibidea

Biografia

1934ko abenduaren 13an jaio zen, Endarlatsan, Irungo lurretan, Gipuzkoako Diputazioak bertan zuen eraikinean, aita mikeletoa baitzuen Joxepak; mikeletoa eta bertsolaria, Patrizio Setien hernaniarra, hain zuzen ere.

Joxepa
Setien

Gerra piztu eta nazionalak Irunen sartzeaz zirela, Joxeparen familiak muga igaro eta Biriatur egin zituen egun gutxi batzuk, eta handik Akitania eskualdeko Mimizanera joan ziren. 8 urte egin zituzten bertan, eta Irungo Larretxipi kalera itzuli ziren gero, Kantoia izeneko etxera. Irungo El Pilarreko mojetan jarraitu zituen Joxepak Mimizanen hasitako ikasketak, eta administrazio ikasketak ere egin zituen. Emakume ikasia eta jantzia, zinez kontu interesgarriak kontatzen ditu, bai eta hainbat gairi buruzko bere iritzia eman ere.

Ondare historikoa biltzen hamaika saio egindakoa da Joxepa, eta prentsa artikulua asko idatzitakoa. Adibide moduan, bere [blogaren](#) eta [facebookaren](#) loturak gehitu ditugu hona.

Zintak

IRN-052

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Data:** 2015-09-22
- **Iraupena:** 76 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Errazkin, Aitor

IRN-053

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Data:** 2015-09-22
- **Iraupena:** 31 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Errazkin, Aitor

Pasarteak

1. Kantoia etxea

- **Erref:** IRN-052/004
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:05:41. **Bukatu:** 00:07:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

Irungo Larretxipi kaleko 2an bizi izan ziren Mimizanetik etorri eta gero, Kantoia izeneko etxean.

2. Kuartelatxe edo Kuartelatze

- **Erref:** IRN-052/005
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:07:29. **Bukatu:** 00:10:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

Irungo hainbat kale eta etxeren jatorrizko izenak galtzen ari dira: Kantoia eta Kuartelatze, adibide bi dira. Kuartelatze Irungo herriko etxe atzeko kale bat zen, eta kalabozoetatik heldu ziren hotsak entzun zitezkeen handik.

3. Jaime Rodriguez Salisekin lanean

- **Erref:** IRN-052/007
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:10:55. **Bukatu:** 00:13:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

Laburpena:

Irungo El Pilar eskolan ibili zen Joxepa, eta baita Flores akademian ere. Ondoren, Jaime Rodriguez Salisekin hasi zen lanean.

4. Floresen akademia

- **Erref:** IRN-052/009
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:14:41. **Bukatu:** 00:16:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Jose Floresen akademian kopuru berdintsutan aritzen ziren neskak zein mutilak. Zubiaurre kale inguruan zegoen akademia lehenik, eta Jacobo Arbelaiz kalean gero.

5. El Pilar-eko kolegioa eta eskola

- **Erref:** IRN-052/011
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:16:59. **Bukatu:** 00:18:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

El Pilar ikastetxeak bi hezkuntza mota eskaintzen zituen: ordainpekoa eta doakoa. Joxepa ez zen ordainpeko kolegiara joan, doako eskolara baizik. Doako eskolako haurrek Prudencia Arbide irundarra zuten ongile.

6. Aita mikelete

- **Erref:** IRN-052/017
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:23:08. **Bukatu:** 00:23:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Aita mikelete zuen Joxepak. Mikeletearen lana nolakoa zen azaltzen du. Zergak kobratzen eta landa-eremuetako lanetan aritzen ziren, besteak beste.

7. Mimizaneko itzulera eta herri erdalduna

- **Erref:** IRN-052/019
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:24:11. **Bukatu:** 00:26:46

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Andino delakoaren gurdira igota sartu ziren Irunen Joxepa eta familiako denak, Mimizanetik trenean itzuli eta gero. Irungo kalean jende gehienak gazteleraz egiten zuenez, Joxepak uste izaten zuen euskaraz entzuten zituen guztiak familikoak zituela.

8. Mimizanetik Irunerako bidaia

- **Erref:** IRN-052/020
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:26:46. **Bukatu:** 00:27:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra ondoren 8 urte egin zituzten Mimizanen, eta itzuleran, Hendaian egin zuten gau batez lo, Irunera iritsi baino lehen. Han ikusi zuen Joxepak bainuontzi bat, lehendabizikoz.

9. Aiako Harriarekin harrituta

- **Erref:** IRN-052/022
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:28:06. **Bukatu:** 00:28:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Mimizan inguruan oso mendi gutxi ikusita zeuden Joxepa eta haren bi anaiak. Irunera itzuli zirenean, Aiako Harria ikusteak harritzen zituen.

10. Irakurtzeko eta idazteko zaletasuna

- **Erref:** IRN-052/024
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:31:23. **Bukatu:** 00:34:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Betitik izan da irakurzalea Joxepa. Frantsesez hasi zituen ikasketak, eta beti

izan du frantsesez idatzitako liburuekiko zaletasuna. Frantsesez idatzitako Euskal Herriari buruzko liburuak bereziki interesatu izan zaizkio, eta baditu batzuk. Idatzi ere egin du Joxepak. Gertatutako gauzei eta garai bateko kontuei buruz idatzi izan du, batez ere; idatziz lagundu du Irungo ondare zein memoria historikoari eusten.

11. Mimizango egonaldia

- **Erref:** IRN-052/026
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:34:28. **Bukatu:** 00:36:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Mimizanen 8 urte egin zituzten Joxeparen anai biek eta gurasoek. Oso ongi egokitu ziren hango bizi-erritmora, eta egonaldi baketsua izan zuten. Amari bizilagun batek erakutsi zion frantsesez irakurtzen.

12. Aitak gaskoiz mintzatzen ikasi zuen

- **Erref:** IRN-052/028
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:39:42. **Bukatu:** 00:40:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Joxeparen aitak gaskoiz hitz egiten ikasi zuen Mimizanen, bertakoekin baso-lanetan aritzen baitzen.

13. Joxe Jabier eta soldadu alemanak

- **Erref:** IRN-052/030
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:41:00. **Bukatu:** 00:43:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Bigarren Mundu Gerrak Mimizanen harrapatu zituen. Alemaniako soldaduekin Joxeparen anaia Joxe Jabierrek izandako pasadizoa.

14. Euskal Herriari buruzko liburuak

- **Erref:** IRN-052/032
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:44:00. **Bukatu:** 00:46:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Frantzian eta Lapurdin Euskal Herriari buruzko hainbat liburu erosi izan ditu Joxepak. Espainian barrena ez du halakorik topatu izan. Donostiako Manterola liburudenda oso gogoan du.

15. Patrizio Setien Setien, Joxeparen aita

- **Erref:** IRN-052/034
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:46:54. **Bukatu:** 00:48:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Hernaniko lyolakoa zuten aita, Patrizio Setien Setien. Bertsolaria zen Patrizio, umore handiko gizona.

16. Aita hernaniarra, Alkizakoa ama

- **Erref:** IRN-052/035
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:48:59. **Bukatu:** 00:51:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitari eta amari buruzko kontuak.

17. Aitak kantatzen zuen bertsoa

- **Erref:** IRN-052/037
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:51:09. **Bukatu:** 00:53:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitak kantatu ohi zuen bertso sail bateko lehendabizikoa kantatzen du Joxepak. Anaia Joxe Jabierrek amaiera irrigarria ematen omen zion bederatziko txikiko bertso-doinuari.

18. Lehendabiziko hartuemana heriotzarekin

- **Erref:** IRN-052/038
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:53:18. **Bukatu:** 00:56:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Landetan bizi zirela, Aitarekin lanean aritzen zen 20 urteko mutil gazte bat hil zen, irundarra hura ere. Oso gertukoa zuten Setiendarrek, oso maitea, eta mutil haren heriotzaren jirako dolu eta meza artean izan zuen Joxepak lehendabiziko kontaktua heriotzarekin. Zazpi urte inguru zituen orduan Joxepak.</p>

19. Larretxipi kaleko etxegabetze-agindua

- **Erref:** IRN-052/039
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:56:39. **Bukatu:** 00:59:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Txikitako eta gaztetako kontuan idatzi zale da Joxepa. Orri-beteko kontakizunak dira gehienak, eta publikatuta ditu asko eta asko, egunkari zein aldizkaritan. Larretxipi kalean bizi zirela, gau batean, etxegabetze baten testigu izan ziren.

20. Baserriarekin harremana

- **Erref:** IRN-052/041
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:59:58. **Bukatu:** 01:01:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Kaletarrak ziren Joxepa eta haren familia, baina amaren zein aitaren aldetik bazuten baserrian bizi zen gertukorik, eta haienera joaten ziren bisitan.

21. "Sortzez eta bataioz ni naiz irundarra..."

- **Erref:** IRN-052/044
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 01:02:53. **Bukatu:** 01:03:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Joxepak bi bider du bere buruaren aurkezpena bertso-idatzi bidez egina. Haietako bat kantatzen du, buruz. Bertsoaren lehen puntua Joan Etxamendi "Bordel" bertsolariaren bertso batetik hartua da.

22. Txirrita bertsolari askea

- **Erref:** IRN-052/046
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 01:04:45. **Bukatu:** 01:08:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsoak buruz ikasi eta kantatu zalea izan da beti Joxepa. Georges Brassens kantari frantsesarekin alderatzen du Txirrita, eta bertsolari hernaniarraren izpiritu askea goratzen du. Txirritaren "neska zar gaztia" sortako lau bertso kantatzen ditu. 6 bertso osatzen du sorta originala, eta 3. eta 6. bertsoa utzi ditu kantatu gabe Joxepak.

23. "Aurra galdu zan arriya" (Txirrita)

- **Erref:** IRN-052/048
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:09:04. **Bukatu:** 01:10:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Txirritak kantatua omen da Hernaniko Akola inguruan gertatutako pasadizo honi buruzko bertsoa.

24. "Zuk hil zenuen artzaia" (Txirrita)

- **Erref:** IRN-052/049
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:10:17. **Bukatu:** 01:11:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Txirritaren bertso pare ezaguna kantatzen du Joxepak.

25. Aita San Martzialetan bertso kantari

- **Erref:** IRN-053/002
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:00:12. **Bukatu:** 00:01:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Joxepak gogoan du bere aita bertso kantari aritu zela, San Martzial egun batez, Ahetzeko Mattin, Basarri eta beste bertsolariren batekin. Uztapideren lagun handia zen Patrizio Setien, Joxeparen aita.

26. Joxe Mari Lopetegi bertsolaria

- **Erref:** IRN-053/003
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:01:26. **Bukatu:** 00:02:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Joxepak badu Irungo Joxe Mari Lopetegi bertsolariaren berri.

27. Irungo Alardean kantinera izateko eskaintza

- **Erref:** IRN-053/007
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:07:50. **Bukatu:** 00:10:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Ezkontzera zihoan urtean berean joan zitzaizkion Joxepari Ama Xantalen konpainiatik, kantinera izan nahi ote zuen galdezka. Joxepak ezetz esan zien, eta, berak dioenez, ez zaio sekula damutu.

28. Patrizio Setien eta Lexoti, lagun handiak

- **Erref:** IRN-053/009
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:10:56. **Bukatu:** 00:12:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Patrizio Setien (Joxeparen aita), Lexoti bertsolari oiartzuarra eta Uztapide lagun handiak ziren hirurak.

29. Manuel Lasarte zenak Joxeparen aita aipatu zuen

- **Erref:** IRN-053/011
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:13:40. **Bukatu:** 00:14:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Manuel Lasarte bertsolariak Joxeparen aitaren aipamena egiten du bere liburuetariko batean; Patrizio Setienena, alegia.

30. Freire kalaeri jarritako bertsoa

- **Erref:** IRN-053/013
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:16:05. **Bukatu:** 00:18:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Joxepak artikulu bat idatzi zuen Irungo Freire kaleari buruz, eta artikuluari bertso bat gehi zion.

31. Joxepa Setien, artikulu asko idatzitako emakumea

- **Erref:** IRN-053/014
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:18:46. **Bukatu:** 00:19:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

El Bidasoa aldizkarian artikulu asko idatzitakoa da Joxepa. Izan ere, maila profesionalean nagusi izan zuen Jaime Rodríguez Salís eta haren inguruak ere asko idazten zutela dirudi, eta haiek animatuta hasi omen zen. Egun ere jarraitzen omen du testutxoak argitaratzen.

32. Juan Basurkoren publikatu gabeko bertsoak I

- **Erref:** IRN-053/015
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:19:54. **Bukatu:** 00:21:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Joxepak Juan Basurkoren publikatu gabeko bertso batzuk jaso zituen.

33. Juan Basurkoren publikatu gabeko bertsoak II

- **Erref:** IRN-053/017
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:23:22. **Bukatu:** 00:23:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Azkenean, Jexux Mari Mendizabal "bizargorriri" helarazi zizkion aurreko pasartean aipatu bertsoak, eta honek Hondarribia aldizkarian publikatu zituen bertso horiek.

34. Joxeparen aita, Juan Basurko eta Fernando Artola, lagunak

- **Erref:** IRN-053/019
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:25:34. **Bukatu:** 00:28:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Lagunak ziren Joxeparen aita, Juan Basurko eta Fernando Artola "Bordari". Joxepak ere ezagutu zuen Juan Basurko. "Jesusen bihotza" aipatzen da, baina "Jesusen bizitza" da Juan Basurkoren liburuaren titulua.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com